

Erosketa eta kontratazio publiko berdea eta ekonomia zirkularra



Administrazio publikoek zeregin eredugarri handia dute ekonomia, kultura, hezkuntza... arloko sektoreetan eta gizarte osoan ingurumenaren gaineko erantzukizuna onartzeko orduan.




AGENDA 2030



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Zer da erosketa eta kontratazio publiko berdea?



Erosketa eta kontratazio berderako prozesuetan, faktore ekonomiko eta teknikoak ez ezik, ingurumen eta gizarte arloko faktoreak ere hartzen dira kontuan.

Europako Batasunak honelaxe azaltzen du zer den erosketa eta kontratazio publiko berdea:

"...prozesu honen bidez, lehen mailako eginkizun bererako beste produktu, zerbitzu eta obra batzuen aldean euren bizi-zikloan ingurumenaren gaineko eragin txikia duten produktuak, zerbitzuak eta obrak erosten saiatzen dira agintari publikoak."

Public procurement for a better environment, COM (2008)

EUSKADIKO 2020KO KONTRATAZIO ETA EROSKETA BERDERAKO PROGRAMA

Urratsez urrats...

2020RAKO PROGRAMAREN HELBURUA

Euskal administrazioen kontratazio eta erosketa publikoen %50ean, ingurumen-irizpideak txertatzea.

2018an...
Produktuen eta zerbitzuen 10 taldeetan, ingurumen-irizpideak kontuan hartzea (papera, ibilgailuak, elikagaiak...).

2020an...
Gainerako produktuen eta zerbitzuen beste 10 taldeetan, ingurumen-irizpideak kontuan hartzea (elektrizitatea, hondakinak, ekitaldiak...).

Indarrean sartu



Eusko Jaurlaritza

Foru Aldundiak

Toki-erakundeak

Beste erakunde publikoak


Lerro estrategikoak



Programa aurrera eramateko tresnen eta baliabideak garatzea	Administrazioari behar besteko tresnak eskaintzea, kontratazioarako prozesuetan ingurumenaren aldagaia kontuan hartzeko.
Kontratazioarako prozeduretan, ingurumen-irizpideak txertatzea.	Behar besteko mekanismoak ezartzea, lehendik zeunden prozeduren azterketaren bidez ingurumenaren aldagaia kontuan hartzeko.
Administrazioetan bertan, prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea	Administrazioetako langileak ingurumenari begira arduratsua den kontratazioaren onuren inguruan prestatzea.
Merkatuarekin koordinatzea	Sektore pribatua mobilizatzea, bete-betean inplikatu dadin.
Lana jakitera ematea eta zabaltzea	Euskal administrazioak nazioarteko erreferente moduan lekurtzea.

Guztion onurarako...

- 1 Berrikuntzarako suspergarria da **enpresa pribatuentzat**, tokiko ekonomia sustatzen da eta ingurumenaren arloko irizpideen ezarpena bultzatzen da.
- 2 Kontratazioa gardenagoa da **erakunde publikoetan**, eta Administrazioen irudiak hobera egiten du.
- 3 **Herritarrei** begira, ingurumenaren kalitatea hobetzen da, eta iraunkortasunaren inguruko kontzientzia soziala areagotzen da.



EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDERAKO ESKULIBURU ERABILGARRIA

Edozein erakunde publiko edo pribatuko jardueran, ingurumenean sorrarazten ditugun eragin kaltegarriak murrizteko moduko neurri errazak ezartzea eta kontuan hartzea ohikoa izatea da helburua.

Beharrezkoa ez denean ez inprimatzean edo alde bikoitzean edo bi orri batean inprimatzean paperaren kontsumoa murrizten badugu edo %100 birziklatutako papera badarabilgu, basoko lehengaiaren kontsumoa gutxituko dugu.

Bulegoko papera



Bilboko Udalak bertako langile guztiei eman die papera aurrezteko jarraitu beharreko urratsak zein diren azaltzen duen bloka.

Bulegoko materiala



Boligrafoak, CDak, pendriveak, grapagailuak, karpetak, artxibategiak... erosteko orduan, hobe da bizitza baliagarri luzea dutenak, kargagarriak edo berrerabilgarriak direnak, bilgarri gehiegi ez daramatenak... erostea.

Bizkaiko Foru Aldundiak arlo horretako neurriak hartu ditu. Hori dela eta, bulegoko materialaren kontsumoa murriztu ahal izan du apurka-apurka, eta zenbait ingurumen-irizpide ere ezarri ditu erosteko orduan: agenda elektronikoa oro har erabiltzea, barra itsaskorrek disolbatzaile organikorik ez edukitzea, paper birziklatua erabiltzea...

Jarduketa handienetakoa tresna elektrikoetako energia aurreztea da. Ekipamenduen entxufeak kendu ezin badira (itzalketa sakona edo "hard off"), hobe da oso kontsumo txikia edukitzea "stand by" eran itzalita daudenean edo energia aurrezteko "sleep" edukitzea. Energiaren kontsumoa ahalik eta urriena dela bermatzeko, hobe da Energy Star etiketadun ordenagailuak erostea.

Bizkaiko Foru Aldundiak urteko jarraipena egiten du saileko inprimagailuen eraginkortasuna hobetzeko, zenbat fotokopia aterako duten edo zenbat erabiltzaile egongo den kontuan hartuta.

Material informatikoak



Eraikinak garbitzeko zerbitzuak

Erabilitako produktuak, jarduketak eta garbitzeko moduak hartzen dira kontuan. Besteak beste, honako hauxe egin beharra dago: garbigarrien toxikotasuna murriztea, garbiketa-aldiak premietara egokitzea (argi naturaleko orduetan garbitzea, garbiketaren maiztasuna balioestea...) edo hondakinen sorrera gutxitzea.



2010ean, Osasun Saileko Bizkaiko Ordezkaritzak irizpideak ezarri zituen bere kontratazioetan. Hartara, besteak beste, kontratistak ura, energia elektrikoa eta argiak zentzuz erabili behar ditu garbiketa egiten ari denean. Era berean, pertsonentzat kaltegarriak ez diren garbigarriak ere erabili behar dira, eta debekatuta dago propulsio-gasdun espraiak erabiltzea.

Ibilgailuak



Ibilgailu ofizialak, garraiorako furgonetak, zabor-kamioak edo anbulantziak erosteko irizpideak desberdinak badira ere, guzti-guztietan ingurumen-arloko irizpide bateratuak hartu behar dira kontuan. Ibilgailua erosteko orduan, zenbait faktore tekniko hartzen da kontuan; esate baterako, kontsumoa, CO₂ igorpenak, zarata-maila... Horrez gain, gidaritza eraginkorra ere sustatzen da, eta ingurumenaren arloko faktoreak ere kontuan hartzen dira artatzeko orduan (olio biziberrituak erabiltzea, gurpil egokiak erabiltzea...).

2004. urteaz geroztik, Bilboko Udaleko Garraio Publikorako Zerbitzuko ibilgailuek kontzentrazio desberdineko biodiesel-nahasketak darabiltzatenez, hiriko airearen kalitatea hobetu da.

Elikagaigintzako eta vendingeko zerbitzuak

Jantokietako menuak hornitzeko ohiko zerbitzugintzan (ikastetxeak, ospitaleak...), cateringeko zerbitzuetan eta elikagaiak saltzeko makinetan, honelako irizpideak hartzen dira kontuan: elikagaiak freskoak bezain sasoikoak izatea eta ingurumena errespetatzea; sukaldeak garbitzean produktu kaltegarriak ez erabiltzea; edo salgaien garraioa kontrolatzea, besteak beste.



Gernikako Allende Salazar ikastetxea eskolako jantokia autokudeatzeko proiektu eredugarria garatzen ari da, didaktika eredugarria, osasuna, tokiko ekonomia eta produktu ekologikoak sustatzeko.



Gehiago jakiteko...

Ekonomia zirkularra. Zer da, zehatz-mehatz?

Eredu ekonomiko honek aberastasuna etengabe sortzea du helburu. Horretarako, ekoizpen-sistema linealetik lineala ez den beste batera igaroko da, eta, bertan, jarduera baten hondakina edo emaitza beste jarduera baten lehengai izango da. Ezin dugu geure etorkizuna «hartu, ekoizti eta botu» ereduaren arabera eraiki.

EKONOMIA LINEALA

Ekoizpena Merkaturaketa eta kontsumoa Hondakinak



EKONOMIA ZIRKULARRAREN HELBURUAK



1. Lehengaien erauzketa murriztea eta baliabide naturalen agorpena geldiaraztea.
2. hondakinen sorrera, negutegi-efektuko gasen (NEG) igorpenak eta substantzia arriskutsuen erabilera gutxitzea.
3. Baliabide berriztagarri zein jasangarrietaranzko iragaitza osatzea (energia, materialak...).

EUROPAKO BATASUNEN EKONOMIA ZIRKULARRERAKO EKINTZA PLANA

Neurri hauek 600 mila milioi euroko aurrezki garbia lortu nahi du enpresa erkideetan. Ekintza Plan honen bidez, Europako Batasunak zenbait jarraibide eskaini nahi ditu, ekonomia zirkularreranzko iragaitza sustatzeko. Hartara, zenbait faktore aipatzen da: ekoizpen-prozesuak, kontsumoa, hondakinen kudeaketa edo bigarren mailako lehengaien erabilera.

Zeintzuk dira bere neurri nagusiak?

- Lehengaien hornikuntza arduratsua sustatzea.
- Produktuen konpongarritasuna, iraunkortasuna eta birziklagarritasuna bultzatzea.
- Programatutako zaharkitzapenari aurre egitea.
- Biomaterialen erabilera eraginkorra sustatzea.
- "Hondakin gutxiago, berrerabilpen gehiago eta, beti-beti, birziklapena" leloa ezartzea.
- Plastikoen industria ekonomia zirkularrean sartzea.
- Elikagaien xahuitze edo zarrastelkeria geldiaraztea.



ZER EGINGO DUT EKONOMIA ZIRKULARRA SUSTATZEKO?

Erosketak eta ekintzak egitean, era bateko edo beste ekonomia sustatzen dugu. Badugu hainbat gauza egiterik, kontsumitzen dugun guztia nola ekoizten den aldatzeko:



- Bigarren eskuko produktuen dendeak eta webguneek zer eskaintzen duten ezagutu.

- Zenbait erakundek arropa biltzeko antolatutako kanpainei buruzko informazioa lortu eta janzten ez duzun guztia eman dohaintzan.

- Bota baino lehen, produktuak konpontzen saiatu.

- Bilgarri gutxiko produktuak erosi, ontziak murrizteko.

- Bidezko merkataritzako produktuak aukeratu.

- Hondakinak eraginkortasunez birziklatu.

- Zentzuz kontsumitu. Edozer erosi aurretik, benetan behar duzun pentsatu.

- Irudimena erabili, gauzei beste erabilera bat emateko.



Trukea itzuli da!

Inoiz ezer bota duzu zaborrontzira beste batentzat erabilgarria izan daitekeela pentsatu arren?

“Freecycle ekimenak” internet bidez garatzen du bere jarduera, eta, bertan, ez darabiltzan gauzak “oparitzen ditu” jendeak: sofak, jostailuak, surf-oholak...

Denetarik dago gero eta jarraitzaile gehiago dituen web-orri horretan.



Zure auzoan, herrian edo hirian garatzen ari diren ekimen guztiei buruzko informazioa eskatu eta...

PARTE HARTU!



“Lurrak gizakien premiei aurre egiteko beste ematen du, baina ez norberaren aberastasun-goseari aurre egiteko”.

Mahatma Gandhi

i

Gehiago jakiteko

Informazio interesgarria

- Euskadiko 2020rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa. Ihobe (Eusko Jaurlaritza).
- 2014ko Edizioa. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua. Ihobe (Eusko Jaurlaritza).
- Ekonomia Zirkularra Euskadin. Ihobe (Eusko Jaurlaritza).
- Ekonomia Zirkularra Fundazioa.
- Ekonomia zirkularrari buruzko sorta: galde-erantzunak.
- Euskal Administrazioaren jardunbide egokiak. Ihobe (Eusko Jaurlaritza).
- Bizkaia21. Jakin jardunerako. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bizkaia21. Jardunbide egokien dekalogoak. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bizkaia21. Etxeko hondakinak eta horien murrizketa. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Udalsarea 21. Jardunbide egokiak.
- Udalsarea 21. 50 Ingurumen-Jardunbide Egoki - Udalerrak eredu.
- Autokontsumoaren adibidea: Santa María de la Paz Aterpetxea. CONAMA 2014.
- Basoko Produktuak Zentzuz Erabiltzeko eta Kontsumitzeko Gidaliburua. Greenpeace.